



ETXEBIZITZA (2013ko otsaila)

ETXEBIZITZAREN EGUNGO EGOERA

Biztanleen %67 bizi diren etxebizitzaren jabe dira hipotekarik gabe (eurak edo gurasoak) eta %25 jabe dira baina hipoteka bat ordaintzen ari dira. Biztanleen %5 baino ez dira alokairuan bizi.

%19k etxebizitza aldatzeko beharra edo nahia erakutsi dute. Horietatik, %30ek "bizitza berri" bat hasteko, baina %64k nahi hori betetzeko aukera gutxi izango dituztela uste dute.

Bost pertsonatik batek bizi den etxebizitza aldatu nahiko lukeela edo aldatu beharko lukeela adierazi du (%19). Etxebizitza aldatzeko arrazoi nagusia *egungo etxebizitza euren beharretara ez egokitzearena da (tamainagatik, igogailu falta...)* (%45), eta bigarren arrazoa "bizitza berri" bat hasteko nahia da (%30), *independizatzeko edo bikotekidearekin bizitzera joateko nahia*.

Etxebizitza aldatzeko beharra edo gogoia duten horietatik, %64k uste dute aukera gutxi edo batere aukerarik ez dutela izango behar hori gauzatzeko, eta soilik laurdenak uste du gauzagarria izan daitekeela (%24).

Etxebizitza berria jabetzan hartu nahi dute hiru laurdenek (%77), eta bostetik batek alokairuan (%20).

Etxea aldatu nahi edo behar dutenen hiru laurdenek etxebizitza berria jabetzan hartu nahi dute (%77), eta bostetik batek alokairuan hartu nahi du (%20). Jabetzan nahiago dutenen artean arrazoi nagusia *etxebizitza erostea aurrezteko modu bat bezala ikusten dutela da* (%30), eta bigarrena *erosi ezkerro behintzat dirua ez dela botatzen* (%23).

Alokairua nahiago dutenen artean, berriz, arrazoi nagusia *etxebizitza bat erosteko adina diru-sarrerarik ez izatea edo diru-sarrera egonkorrik ez izatea da* (%55), eta bigarrena, *hipoteka batean sartu nahi ez izatea* (%25).

Hamar pertsonatik batek arazoak ditu gaur egun bizi den etxebizitzako gastuei aurre egiteko (alokairua, hipoteka, komunitate gastuak...) (%12)

Biztanleen %88k ez dute arazorik egun etxebizitzaren gastuei aurre egiteko, aldiz, %12k arazoak dituztela adierazi dute. Urtebete barru, berriz, %68k aurreikusten dute arazorik ez dutela izango, eta %19k arazoak izango dituztela uste dute.

ETXE-GABETZEAK

Gehienek, etxe-gabetua izan den edo izateko puntuan dagoen inor ezagutu gabe (%88) eta norbera arriskuan egon gabe (%91), etxe-gabetzeen auzia "arazo sozial" larritzat jotzen dute.

Herritarren %88k ez dute inor ezagutzen etxe-gabetua izan dena edo izateko arriskuan dagoena eta %91k ez du bere burua etxe-gabetua izateko arriskuan ikusten, hala ere, etxe-gabetzeen arazoaren larritasun maila 8,9an kokatzen dute inkestatuek (0tik 10erako eskalan).

Zentzu berean, hamarretik zazpi uste dute etxe-gabetzeen gaia "arazo soziala" dela (denoi eragiten diguna) (%71), eta hamarretik bik uste dute arazo pribatua dela (zorria duten pertsonen eta bankuen artekoa) (%19).

Konkretuki, ehun pertsonatik 6 datozen bost urteetan kaleratua izateko arriskuan egon liteke

%3 datozen bost urteetan kaleratua izateko arriskuan egon liteke eta beste %3 agian arriskuan egongo da. Biztanleen %91k, berriz, ez du bere burua kaleratua izateko arriskuan ikusten.

Norberaz aparte, elkarrizketatuen %11k norbait ezagutzen dute kaleratua izan dena edo kaleratua izateko puntuan dagoena, eta %88k berriz ez dute inor ezagutzen egoera horretan.



Gauzak horrela, etxe-gabetzeen arazoa konpontzeko guztiok parte hartu behar dugula uste dute inkestatuek eta arazoaren gainean egin daitekeen guztia ongi ikusia da.

Etxe-gabetzeen auzia konpontzeko ardura eragile ezberdinen artean banatzen da: Gobernu Zentrala (%39), bankuak (%20), Eusko Jaurlaritza (%17), Diputatuen Kongresua (%6), Eusko Legebiltzarra (%3), zorrak dituzten familiak (%2) eta beste batzuk (%4).

Era berean, auziari irtenbidea emateko hainbat eragile sozialek proposatutako neurriek gehiengoaren babesa jaso dute.

- *Etxe-gabetzeen ondorioz bankuek jaso dituzten etxebizitzak alokairu sozialean jartzea euren etxeetatik kaleratuak izan direnentzat (%91 guztiz edo nahikoa ados).*
- *Ohiko etxebizitzetara eragiten dieten etxe-gabetzeak geldiaraztea (%88).*
- *Zorren ordainean etxea ematearekin nahikoa izatea (%73).*

Bestalde, 0tik 10erako eskalan, 8,8ko lehentasun maila ematen zaio gaur egun dagoen hipoteka-legearen erreforma egiteari.

ETXEBIZITZA POLITIKAK

Babes handia jaso du Eusko Jaurlaritzak, jabetzaren ordeztasun, alokairu sozialak sustatu beharko lituzkeenaren gaineko ideiak

Ingurumari honetan, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak alokairuan eskaintzea, jabetzaren ordeztasun, ongi ikusiko luke hamarretik bederatzik (%90 ados edo guztiz ados).

Etxebizitzaren auzia konpontzeko proposatutako neurrietatik, berriz, **alokairua errenta merkeagoekin sustatzearenak jaso du babes handiena** (0tik 10erako eskalan, 8,6), eta bigarrenik, etxebizitza hutsen jabeek hauek alokatzea sustatzeak (7,7).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsultatu daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 940 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefono bidez egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,26$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2013ko otsailaren 6a eta 7a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean aurki daiteke:

http://www.euskadi.net/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 22a